## Leioako Udala

IRAGARKIA

**Udal-Plangintzako Aholku-Batzordearen araudi arautzailea behin betiko onestea**

2008-10-30eko osoko bilkuraren 9. zenbakiko erabakiaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Udal Plangintzako Aholku Batzordearen araudi arautzaileari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2008ko azaroaren 17an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean horri buruzko iragarkia, alegazioak aurkeztu ahal izan zitezen 30 eguneko epean.

Adierazitako epean inork ez zuenez alegaziorik aurkeztu, behin betiko onetsi da aldaketa hori.

Hori dela-eta, 7/1985 Legearen 70. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudiaren edukia argitaratu da, indarrean sar dadin.

Aldaketa hau behin betiko onesteko erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa ipini ahal izango da, administrazioarekiko auzietako epaitegietan; bi hilabeteko epea egongo da horretarako, aldaketa hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

LEIOAKO UDAL-PLANGINTZAKO AHOLKU-BATZORDEAREN UDAL-ARAUDIA

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. eta 110. artikuluetan ezarrita dagoela plan orokorrak behin betiko onesteko eskumena duten udalerri guztietan, Leioan esate baterako, Udal Plangintzako Aholku Batzordea egon behar dela, aipatutako plangintza aldatzen denean loteslea izango ez den aginduzko txostena eman dezan.

110. artikuluan honakoa dakar, hitzez hitz:

«Udal-plangintzako aholku-batzordearen osaera:

Udal-erregelamendu bidez zehaztuko da udal-plangintzako aholku-batzordea nork osatuko duen eta batzorde hori nola jardun, eratu eta desegingo den. Udalerriko alkatea izango da batzordeko burua eta batzordeko kide izango da hirigintza arloko zinegotzia ere. Nolanahi ere, batzordeko kideen artean udalerriko auzo-elkarteen eta ingurunearen defentsan ari diren antolakundeen ordezkariak ordezkariak egongo dira.»

2/2006 Legea garatu duen ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian honakoa dakar, besteak beste:

«Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean jarri ondoren hasiera batean onartutako plangintza orokorraren aldaketa puntualari eta berrikuspenari buruzko espedienteetan, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen aginduzko txostena eta Batzordeak egindako iradokizunen edo gomendioen inguruan Udalak emandako iritzia edo erantzuna erantsi beharko zaizkio espedientearen behin-behineko onarpenari buruzko erabakiari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera eska daitekeen kasuetan...........

Plangintzako Aholku Batzordearen txostena, kontuan hartu izanari edo ez izanari buruzko udal-ziurtagiria eta egindako iradokizunak edo gomendioak kontuan ez hartzeko emandako erantzuna Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorri beharreko espedienteari gaineratu beharko zaizkio, Batzorde horrek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitako txosten loteslea eta aginduzkoa egin dezan. Udalak Plangintzako Aholku Batzordearen txostena eta dokumentazioa ez aurkeztea Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordean espedientea ez onartzeko arrazoia izango da, eta Batzorde horrek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitako txostena egiteko duen epea eten egingo da.»

## Ayuntamiento de Leioa

ANUNCIO

**Aprobación definitiva del Reglamento Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal**

Mediante acuerdo plenario número 9 de fecha 30-10-2008, se aprobó con carácter inicial el Reglamento Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

Conforme a lo estipulado en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se publicó en el «Boletín Oficial de Bizkaia», de fecha 17 de noviembre de 2008, el correspondiente anuncio a efectos de presentación de alegaciones en el plazo de 30 días.

Como quiera que en el plazo señalado no se ha presentado alegación alguna se ha procedido a aprobar la modificación con carácter definitivo.

Por ello, de acuerdo a lo estipulado en el artículo 70 de la Ley 7/1985, se publica el contenido del Reglamento a efectos de su entrada en vigor.

Contra la aprobación definitiva de esta modificación podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente a la publicación de esta modificación.

REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE LEIOA

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo establece en sus artículos 109 y 110 la necesidad de implantar en todos los municipios que tengan la competencia para la aprobación definitiva de Planes Generales, como es el caso de Leioa, un Consejo Asesor del Planeamiento Municipal a efectos de su informe perceptivo y no vinculante cuando se modifique el citado planeamiento.

En concreto el artículo 110, tiene la siguiente literalidad:

«Composición del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal:

Mediante reglamento municipal se determinará la composición y el funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal, que deberá estar presidido por la alcaldía del municipio y contará con la presencia del concejal responsable del área de urbanismo. En todo caso, la composición de este órgano garantizará la presencia del movimiento asociativo vecinal y de representantes de entidades u organizaciones dedicadas a la protección y defensa medioambiental que intervengan en el término municipal.»

Por otra parte, el Decreto 105/2008, de 3 de junio, que desarrolla la Ley 2/2006, señala en su Disposición Adicional Cuarta, entre otros apartados, lo siguiente:

«Los expedientes de modificación puntual y revisión de planeamiento general aprobados inicialmente con posterioridad a la entrada en vigor de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, deberán anexar al acuerdo de aprobación provisional del citado expediente el informe preceptivo del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal junto con la consideración o contestación que el Ayuntamiento haya adoptado respecto a las sugerencias o recomendaciones formuladas por aquél en aquellos supuestos en que el sea exigible según lo dispuesto por la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo...........

La existencia del informe del Consejo Asesor de Planeamiento junto con la certificación municipal de su toma o no en consideración junto con la contestación para la no toma en consideración de las sugerencias o recomendaciones formuladas, serán documentos que deberán acompañarse al expediente que se remita a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para la formulación por el mismo del informe preceptivo y vinculante previsto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo. La no presentación por parte del Ayuntamiento del informe y documentación exigible del Consejo Asesor de Planeamiento será considerado motivo de inadmisión del expediente en la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco interrumpiendo el plazo de dicha Comisión para emisión del informe previsto en el citado artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.»

Horregatik guztiagatik, Leioako Udalak plangintza arloan duen dinamismoa kontuan hartuta, nahitaezkoa da Udal Plangintzako Aholku Batzordea nork osatuko duen eta batzorde hori nola jardun, eratu eta desegingo den zehaztuko duen udal araudia ahalik eta lasterren onestea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluak Toki Administrazio honi eman dion erregelamenduak egin eta bere burua antolatzeko ahala erabilita, Araudi hau onestea proposatu du.

I. KAPITULUA

**UDAL-PLANGINTZAKO AHOLKU-BATZORDEAREN IZAERA ETA EGINKIZUNAK**

**1. artikulua.—*Udal Plangintzako Aholku Batzordea sortzea***

1. Leioako udalerriko Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea sortu da. Hirigintza-plangintza dela-eta, udalaren eta gizarte eta ingurumen-arloetako eragileen informazio eta eztabaidarako gune izateko eratu da Aholku Batzordea.

2. Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea aholkurako eta eztabaidarako tokiko organoa da, ez du berezko nortasun juridikorik, eta egitura antolatzeko hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedura gizartearekin hitzartzeko funtzioak beteko ditu.

**2. artikulua.—*Atxikipena***

Hirigintza gaietan eskumenak dituen udal gobernuko arloari atxikiko zaio Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea.

**3. artikulua.—*Izaera juridikoa***

Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeak kide anitzeko organo baten izaera du (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean arautzen dira horrelako organoak).

**4. artikulua.—*Eginkizunak***

Udal Plangintzako Aholku Batzordearen proposamenak gomendiotzat hartuko dira, eta gai hauei buruzko informazioa emango du:

1. Plan Orokorra, Sektorizazio Plana edota Bateratze Plana lehenengoz egin, guztiz berrikusi edo zati batean berrikusteari buruzko espedienteetan, aholku-batzordeak aurrerapen-agiriaren edukiari buruzko txostena egingo du, agiri hori nahitaezkoa bada.

2. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren aldaketa zehatzari buruzko espedienteetan, jendaurrean jarriko den lehenengo agiriaren edukiari buruzko txostena egin beharko da.

II. KAPITULUA

**UDAL-PLANGINTZAKO AHOLKU-BATZORDEAREN OSAERA**

**5. artikulua.—*Osaera***

Udal Plangintzako Aholku Batzordeak ondoko kide hauek izango ditu:

a) *Batzordeko burua:*

— Udaleko alkatea; alkateak berak eskuordetutako zinegotziak ordeztu ahal izango du edo, egokitzat jotzen badu, batzordeko buruordeak.

b) *Batzordeko buruordea:*

— Hirigintza Arloko zinegotzi eskuordetua.

c) *Idazkaria:*

— Hirigintza Arloko Informazio Batzordeko idazkaria.

d) *Batzordeko kide titularrak:*

— Udalaren izenean: Hirigintza Arloko Informazio Batzordeko kideak.

Por todo ello, teniendo en cuenta el dinamismo en materia de planeamiento que afecta al Ayuntamiento de Leioa, se hace necesario aprobar con la máxima urgencia el Reglamento Municipal que determine la composición, funcionamiento, constitución y disolución del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, en virtud de la potestad reglamentaria y de autoorganización que le otorga a esta Administración Local el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

CAPÍTULO I

**NATURALEZA Y FUNCIONES DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL**

**Artículo 1.—*Creación del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal***

1. Se crea el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Municipio de Leioa. El Consejo Asesor se constituye como espacio de información y debate del Ayuntamiento, de los Agentes sociales y ambientales interesados en el Planeamiento Urbanístico.

2. El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico es un órgano local sin personalidad jurídica propia, de carácter consultivo y deliberante para el cumplimiento de las funciones de concertación social en relación con el procedimiento de formulación, tramitación y aprobación de los planes urbanísticos de ordenación estructural.

**Artículo 2.—*Adscripción***

El Consejo Asesor del Planeamiento Urbanístico se adscribe al Área del Gobierno Municipal competente en materia de urbanismo.

**Artículo 3.—*Naturaleza jurídica***

El Consejo Asesor del Planeamiento Urbanístico se configura como órgano colegiado de los regulados en la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 4.—*Funciones***

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal, cuyas propuestas tendrán la consideración de recomendaciones, informará de los siguientes asuntos:

1. En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización, será necesario su informe respecto al contenido del documento de avance, cuando éste sea preceptivo

2. En los expedientes relativos a la modificación puntual del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización, será necesaria su informe respecto al contenido del primer documento que se someta a información pública.

CAPÍTULO II

**COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL**

**Artículo 5.—*Composición***

El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal estará compuesto por los siguientes miembros:

a) *Presidente:*

— Alcalde del Ayuntamiento, quien podrá ser sustituido por un Concejal en quien delegue o, si lo considera oportuno, por el vicepresidente.

b) *Vicepresidente:*

— Concejal Delegado del Área de Urbanismo.

c) Secretario:

— El Secretario de la Comisión Informativa del Área de Urbanismo.

d) Vocales titulares:

— Por el Ayuntamiento: Los vocales de la Comisión Informativa del Área de Urbanismo.

— Auzokideen elkarteen izenean: Ordezkari bat.
— Ingurumenaren defentsan ari diren antolakundeen izenean: Ordezkari bat.
— Ezinduen elkarteen izenean: Ordezkari bat.
— Kultura- eta kirol-elkarteen izenean: Ordezkari bat.
— Emakumeen elkarteen izenean: Ordezkari bat.
— Adinekoen elkarteen izenean: Ordezkari bat.
— Leioako merkatarien elkarteen izenean: Ordezkari bat.

**6. artikulua.—*Aholku Batzordeko idazkaritza***

Honako eginkizun hauek izango ditu Aholku Batzordeko idazkariak, batzordeko buruaren zuzendaritzapean:

a) Batzordearen deialdiak egitea, gai-zerrenda erantsiz.

b) Batzordearen osoko bilkuraren bileretara bertaratzea, hitza izango duela baina botorik ez, eta bileren akta idatzi eta Batzordeko buruarekin batera sinatzea.

c) Agiriak artxibatu eta erregistratzeko lanak egitea, baita idazkariaren izaerari atxikitakoak ere.

d) Batzordeko kideei aktak bidaltzea.

e) Batzordeari laguntza eta aholkularitza eskaintzea.

**7. artikulua.—*Batzordeko kideen ordezkaritza***

1. Hilabeteko epean, araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, 5. artikuluan aipatutako elkarte eta erakundeek batzordean parte hartzeko eskatu ahal izango dute, udaleko erregistro orokorrean idazkia aurkeztuz.

2. Elkarte-erakundeek Elkarteen Erregistro Ofizialean erregistratuta egon behar dute, batzordean ordezkariak izendatu ahal izateko. Horrez gain, Leioako udalerri osoa edo zati bat hartzen duen jarduera-esparrua izan behar dute.

**8. artikulua.—*Batzordeko kideak izendatzea eta kentzea***

1. Erakundeek proposatuko dituzte euren ordezkariak batzordeko kide izateko.

2. Aurreko artikuluan aipatutakoaren arabera parte hartzeko eskaera egiten duten erakundeen kopurua dagokion taldeko ordezkarien kopurua (talde edo elkarte bakoitzetik bat, 5 d) artikuluari jarraiki) baino handiagoa bada, alkateak aurkeztu direnen artean izendatuko ditu ordezkariak, irizpide hauek kontuan hartuta: Leioako auzoetako gizarte-jardueran duen ezarpena, ordezkaritza eta ibilbidea.

Udalerriko lurralde-eremu jakin batzuei eragiten dieten plangintza-aldaketetan, auzokoen elkarteen ordezkariek aipatutako eremuetan berariazko interesa duen elkartekoak izan beharko dute. Ondorioz, udal mugarte osoa hartzen duten plangintza-gaiak lantzeko ordezkariak izendatuta egonda ere, alkateak horiek ordeztu ahal izango ditu, plangintza aldatzea proposatzen den eremuan berariazko eskumena duten erakundeen ordezkariak jarriz haien ordez.

Postu bakoitzeko titular bat eta ordezko bat izendatuko dira.

3. Aholku Batzordeko kideak alkatearen dekretuaren bidez izendatuko dira.

4. Kide titularrak izendatzerakoan, titularrek aldez aurretik onartu behar dute izendapena.

5. Zinegotzi diren batzordeko kide titularrek, betiere, Udalbatzaren agintaldia bukatzen denean batzordea utziko dute.

6. Gainerako kide titularrek lau urte iraungo dute karguan. Hala ere, ondoko kasuetan ere batzordea utzi beharko dute:

— Beren beregi batzordeko kide izateari uko egiten diotenean edo hiltzen direnean.
— Epai judizial irmo baten bidez kargu publikoa izateko ezintasuna edo ezgaitasuna deklarazten denean.

— Por asociaciones de vecinos: Un representante.
— Por entidades u organizaciones dedicadas a la protección y defensa medioambiental: Un representante.
— Por las asociaciones de discapacitados: Un representante.
— Por asociaciones culturales y deportivas: Un representante.
— Por asociaciones de mujeres: Un representante.
— Por asociaciones de mayores: Un representante.
— Por asociación/es de comerciantes de Leioa: Un representante.

**Artículo 6—*Secretaría del Consejo Asesor***

La Secretaría del Consejo Asesor bajo la dirección de la presidencia del mismo ejercerá las siguientes funciones:

a) Cursar las convocatorias del consejo, acompañando a las mismas el orden del día.

b) Asistir, con voz pero sin voto, a las secciones del pleno del consejo, elevar acta de las mismas firmándolas junto con la presidencia.

c) Desempeñar las funciones de archivo y registro, así como las inherentes a su condición.

d) Remisión de las actas a los miembros del consejo.

e) Asistencia y asesoramiento al consejo.

**Artículo 7.—*Representación de los vocales***

1. Dentro del plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación del presente Reglamento en el «Boletín Oficial de Bizkaia», las asociaciones y entidades citadas en el artículo 5 podrán solicitar participar en el Consejo, mediante escrito presentado en el registro General del Ayuntamiento.

2. Las entidades asociativas deben estar inscritas en el Registro Oficial de Asociaciones para poder designar representantes en el Consejo y deben tener un ámbito de actuación que incluya todo o parte del Municipio de Leioa.

**Artículo 8.—*Nombramiento y cese de los vocales***

1. Los vocales serán propuestos por las entidades que representan.

2. En el caso de que el número de entidades o asociaciones que solicitan participar conforme a lo señalado en el artículo anterior, sea superior al de representantes del grupo correspondiente (uno por cada grupo o asociación conforme al artículo 5 d), el alcalde designará un representante entre los presentados, con criterios de implantación, representatividad y trayectoria en la actividad social vecinal en Leioa.

En las modificaciones de planeamiento que afecten a determinadas zonas territoriales del municipio, los representantes de las asociaciones de vecinos deberán pertenecer a aquella asociación que tenga intereses específicos en las citadas zonas. En consecuencia, independientemente de que se haya nombrado representantes para tratar asuntos de planeamiento que abarquen la totalidad del término municipal, el alcalde podrá sustituir a los mismos por representantes de entidades con competencia específica en la zona donde se propone la modificación de planeamiento.

Se designará por cada puesto un titular y un suplente.

3. El nombramiento de los miembros del Consejo Asesor, se efectuará mediante el oportuno decreto de alcaldía.

4. El nombramiento de los vocales titulares requerirá la aceptación previa por parte de éstos.

5. Los vocales titulares que ostenten la condición de concejales cesarán, en todo caso cuando expire el mandato de la Corporación Municipal.

6. La duración del cargo del resto de los vocales titulares será de cuatro años, no obstante podrán ser cesados, también por las siguientes causas:

— Por renuncia expresa o fallecimiento.
— Por declaración de incapacidad o inhabilitación para el desempeño de cargo público por sentencia judicial firme.

— Euren karguagatik batzordeko kide diren pertsonek kargua uzten dutenean batzordea ere utzi beharko dute.

— Ordezkatzen duten elkarte, talde edo kolektiboa uzten dutenean.

— Elkartearen estatutuetan funtsezko aldaketa egonez gero, baldin eta horren ondorioz haiek hautatzeko irizpidea aldatu bada.

— Araudi honetan adierazitako eginkizunak eta betebeharrak behin eta berriz bete ezean.

— Kide bat proposatu duen erakundeak enkaitzen duenean.

— Sektoreko elkarte berriak erregistratuz gero eta horiek Aholku Batzordeko kide izatea eskatuz gero, baldin eta egungo ordezkaria kentzea eta beste ordezkari bat izendatzea beharrezkoa bada, irizpide hauei eustearren: Leioan duen ordezkaritza eta ezarpena eta auzoetako gizarte-jardueran duen ibilbidea.

7. Batzordeko plaza hutsak gehienez ere hilabeteko epean beteko dira, izendapenerako ezarri den modu berean.

8. Batzordeko buruak, batzordeko buruordeak edo batzordeko kideen erdiak proposatuz gero, ondoko hauek batzordearen batzarretan parte har dezakete, nahiz eta batzordeko kide izan ez, hitz egiteko eskubidearekin baina boto eskubiderik gabe:

— Hirigintza planak idazten dituzten teknikariak.

— Hirigintza eta Ingurumen arloetako udal teknikariak.

**9. artikulua.—*Ordainsariak***

Aholku Batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jasotzeko eskubiderik euren eginkizunak betetzeagatik.

III. KAPITULUA

**FUNTZIONAMENDU-ARAUBIDEA**

**10. artikulua.—*Bilerak***

Udal Plangintzako Aholku Batzordea Hirigintza Arloko Informazio Batzordearekin batera deituko da, egitura-plangintzari eragiten dioten espedienteen aurrerapena, hasierako onespena eta behin-behineko onespena eztabaidatzen diren bakoitzean, horien txostena egiteko.

Gutxienez batzordeko kide guztien %25 ordezkatzen duen taldeak eskatu ahal izango du aparteko bilerak egiteko, eta batzordeko burutza behartuta egongo da eskatutako gaia eztabaidatzeko bilera deitzera gehienez ere 15 egun balioduneko epean.

**11. artikulua.—*Osoko bilkura eratzeko quoruma***

Batzarrak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko asmoz, batzordearen osoko bilkura baliozko eran eratutzat jotzeko, batzordeko burua edo hark eskuordetu duen pertsona, idazkaria eta gutxienez kideen erdia (batzordeko burutza, buruordetza eta kideak zenbatuta) egon beharko dira bertaratuta, lehenengo deialdian. Quorum horretara iritsi ezean, bigarren deialdia egingo da, ordu erdi beranduago, bertaratuen kopurua edozein dela, baldin eta batzarreko burua izango dena, bi kide eta batzordeko idazkaria bertan badaude.

**12. artikulua.—*Batzarrak deitzea***

Batzarrak batzordeko buruak deituko ditu, gutxienez batzarraren eguna baino hiru egun lehenago batzarra ohikoa bada eta gutxienez bi egun lehenago batzarra apartekoa bada. Deialdiari landu beharreko gaien zerrenda erantsiko zaio eta, horrez gain, kontsultatzeko beharrezkoa izan daitekeen dokumentazioa non aurki daitekeen ere adieraziko da.

**13. artikulua.—*Eztabaidak***

Batzordeko buruak batzarrak zuzenduko ditu, eztabaidak antolatuko ditu eta batzarrak ondo egiten direla bermatzeko komeni diren neurriak hartuko ditu. Era berean, batzarrak bertan behera utzi ditzake, arrazoiak justifikatzen baditu.

— En caso de los miembros que lo sean por razón de su cargo, cesarán cuando pierdan la condición.

— Cese en la Asociación, grupo o colectivo que representan.

— Cambio sustancial en los Estatutos de la Asociación que modifiquen el criterio por el que fueron designadas.

— Incumplimiento reiterado de las funciones y deberes expresados en el presente Reglamento.

— Remoción por la organización proponente.

— Por registro de nuevas asociaciones del sector y que soliciten ser parte del Consejo Asesor, que hagan necesario el cese del representante actual y nombramiento de nuevo representante por mantener los criterios de representatividad, implantación en Leioa y trayectoria en la actividad sociovecinal.

7. Las vacantes se proveerán en el plazo máximo de un mes, en la misma forma establecida para su nombramiento.

8. A propuesta del Presidente, del Vicepresidente o de la mitad de los vocales, podrán también participar en las reuniones del Consejo aún no siendo miembros del mismo, con voz pero sin voto:

— Personal técnico encargadas de la redacción de planes urbanísticos.

— Los técnicos municipales de las áreas de Urbanismo y Medio Ambiente.

**Artículo 9.—*Remuneraciones***

Los miembros del Consejo Asesor no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

CAPÍTULO III

**RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO**

**Artículo 10.—*Sesiones***

El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal será convocado conjuntamente con la Comisión Informativa del Área de Urbanismo cada vez que se debata para su informe las fases de Avance, Aprobación Inicial y Aprobación Provisional de expedientes que afecten al planeamiento estructural.

Los vocales que representen al menos el 25% del total de los mismos, podrán solicitar la convocatoria de sesiones con carácter extraordinario, estando obligada la presidencia a convocar una sesión para tratar del asunto solicitado en el plazo máximo de 15 días hábiles.

**Artículo 11.—*Quórum de constitución***

El pleno del consejo queda válidamente constituido a efectos de celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, cuando estén presentes en primera convocatoria el presidente o persona en que haya delegado, el secretario, y al menos la mitad de sus miembros, contando la presidencia, vicepresidencia y vocales. Si dicho quórum no se alcanzase, habrá una segunda convocatoria, media hora después, con cualquiera que fuese el numero de asistentes, siempre que estén presentes quien ejerza la presidencia, dos vocales y la secretaría del consejo.

**Artículo 12.—*Convocatoria de sesiones***

La convocatoria de sesiones se realizará por el presidente con un mínimo de tres días de antelación con respecto a la fecha que deba tener la sesión si esta es ordinaria y de dos días en caso de que fuese extraordinaria. La convocatoria incluirá el orden del día de los asuntos a tratar así como la indicación del lugar donde se encuentra la documentación que pudiera ser necesaria para su consulta.

**Artículo 13.—*Deliberaciones***

La presidencia del consejo, dirigirá las sesiones, ordenará los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden de las reuniones, pudiendo suspenderlas por causas justificadas.

**14. artikulua.—*Erabakiak hartzea***

1. Aldeko edo aurkako botoa emango da, eta, era berean, abstentzioa egon daiteke. Botoa Batzordeko beste kideren bati eskuordetzea debekatuta dago.

2. Aholku Batzordearen erabakiak bertaratzen diren kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnean gehiengoa dago.

3. Berdinketa egonez gero, batzordeko buruak kalitate botoa emango du.

Edonola ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritziak agerrarazi.

**15. artikulua.—*Tokia eta akta***

Aholku Batzordearen batzarrak udaletxeko bulegoetan egingo dira, eta horietako bakoitzaren akta egingo du idazkaritzak. Akta hori batzordeko kideei bidaliko zaie, gehienez ere 15 egun balioduneko epean.

IV. KAPITULUA

**BATZORDEA DESEGITEA**

**16. artikulua.—*Desegitea***

Batzordearen osoko bilkurak hartutako erabakiaren bitartez desegingo da, indarreko antolamendu juridikoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan beren beregi aurreikusi diren gauzetan, Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordearen funtzionamendua eta jarduna Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. kapituluko II. tituluan xedatutakoaren araberakoak izango dira. Gainerakoetan, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudian (2568/1986 Errege Dekretua) ezarritakoa bete beharko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau indarrean sartzen den egunean dagoeneko hasierako onespena daukaten egitura-plangintzaren aldaketa-espedienteen kasuan, Aholku Batzordearen nahitaezko txostena behinbehineko onespenaren aurretiko txostenaren izapidean egingo da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, 30 lanegun igaro ondoren.

Araudi honen indarraldia bukatuko da, Udalaren osoko bilkurak berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen duenean edo Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean Udal Plangintzako Aholku Batzordeari eragiten dion aldaketaren bat egiten denean.

Leioan, 2009ko urtarrilaren 23an.—Alkatea, Eneko Arruebarrena Elizondo

(II-656)

**Artículo 14.—*Adopción de acuerdos***

1. El voto se emitirá en sentido afirmativo o negativo, siendo posible también la abstención. No será posible la delegación del voto en otro miembro del consejo,.

2. Los acuerdos del Consejo Asesor se adoptarán por mayoría simple de los asistentes. Existe mayoría cuando los votos afirmativos son más que los negativos.

3. En caso de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad.

En todo caso se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia de las objeciones planteadas por las partes discrepantes.

**Artículo 15—*Lugar y acta***

Las sesiones del Consejo Asesor se celebrarán en dependencias del Ayuntamiento, y de cada una de ellas se extenderá acta por la secretaría, que será remitida a sus miembros en el término máximo de 15 días hábiles.

CAPÍTULO IV

**DISOLUCIÓN DEL CONSEJO**

**Artículo 16.—*Disolución***

Se disolverá por acuerdo plenario del Consejo, conforme al ordenamiento jurídico vigente.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En lo previsto expresamente en este Reglamento, el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico, se regirá en cuanto a su funcionamiento y actuación por lo dispuesto en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común. En el resto de disposiciones, se estará supletoriamente a lo establecido la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2568/1986).

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Para aquellos expedientes de modificación de Planeamiento Estructural que a la fecha de entrada en vigor del presente reglamento ya dispongan de aprobación inicial, el informe preceptivo del Consejo Asesor se realizará en el trámite de informe previo a la aprobación provisional.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento entrará en vigor a los 30 días hábiles a partir del día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Este Reglamento perderá su vigencia cuando el Pleno del Ayuntamiento acuerde su modificación o derogación, o cuando se produzca una modificación en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco que afecte al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

En Leioa, 23 de enero de 2009.—El Alcalde, Eneko Arruebarrena Elizondo

(II-656)

•

## Derioko Udala

IRAGARKIA

2009ko urtarrilaren 15eko datazko 3/2009 zenbakiko Alkatetzako Dekretuaren bidez, Antonio Martínez Moral Derioko udaleko Zinegotziari eskuordetu zaio jarraian azalduko den ezkontza baimentzeko eskumena: Marta Alameda Aparicio eta Abel Ángel Amutxategi Ortega jaun-andreen arteko ezkontza. Udaletxeko batzararetoan egingo da 2009ko martxoaren 14an, 13:00an.

Derion, 2009ko urtarrilaren 23an.—Idazkaria

(II-649)

## Ayuntamiento de Derio

ANUNCIO

Por Decreto de la Alcaldía número 3/2009, de 15 de enero, se ha resuelto delegar a favor de don Antonio Martínez Moral, Concejal del Ayuntamiento de Derio, la facultad para autorizar el matrimonio de doña Marta Alameda Aparicio y don Abel Ángel Amutxategi Ortega, a celebrar el próximo día 14 de marzo de 2009, a las 13:00 horas, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

En Derio, a 23 de enero de 2009.—La Secretaria

(II-649)